

GASTEIZ-ARLABAN

Vasco-Navarro trenbideko ibilbide berdea



2



Vasco-Navarro trenbide zaharra ibiltarien eta bizikletazaleen gozamenerako prestatu da. Araban trenbide honek kontraste ugariak paisaiak eta naturgune ezin ederragoak zeharkatzen ditu, eta behinolako geltoki zaharren malenkonia uzten digu. Ibilbideak Araba osoa zeharkatzen du iparretik hegora, Arlabango mendatea eta Estellerria lotzen dituela.

15 bat kilometroko ibilaldi honetan Gasteiztik abiatu eta Gipuzkoako mugara helduko gara, behinola Arabako hiriburua eta Bergara lotzen zituen trenbidea gogoratuz. Ibilbide erraz honetan Natura 2000 Sarean sartutako hariztiak aurkituko dituzu, bai eta laborantza sailak ere, Gasteizko eraztun berdearen ondotik pasatuko zara, ikuspegi ederrak gozatu ahal izango dituzu (Gorbeia mendia, Zadorra ibaia, Uribarri Ganboako urtegia), eta Albertia mendiko pagadietan barneratu ahal izango zara.



Zadorra ibaiko zubia.

Abialekua Gamarrako kiroldegiko aparkalekua da, Gasteizko eraztun berdean dagoen Zadorrako parketik hurbil

IBILBIDEA

Lehen kilometroetan hainbat bidegurutze aurkituko ditugu. Den-denetan aurrera egin behar dugu zuzen, Erretanarantz.

0 km	Gamarrako aparkalekutik abiatu ondoren bidegorria hartu behar dugu eta iparrera jo, Durarantz.
0,2 km	Zadorra ibaia zeharkatu behar da. Zuzen jarraituko duzu.
0,7 km	Bidegurutzea. Hemen ere zuzen jarraitu behar dugu; gero N-1 errepideko zubi baten azpitik pasatu behar gara. Eskuinean Zadorra ibaia (Natura 2000 Sarea) dugula ibiliko gara. Aldi batez pausatu eta ibaia miretsi behar genuke: uraren joana, ur bazterrak eta artapen egoera.
1,1 km	Ezkerrean Gamarragutxia utzi eta Durara hurbilduko gara. Bidegurutze bat dago. Eskuineko bidea hartu behar dugu; gero AHTko zubi baten azpitik pasatuko gara. Metro batzuk aurrera eginda, berriz ere Vasco-Navarro tren zihon bidera iritsiko gara.



Eskuinean *Arzubiagako hariztia* dago, ibilbide honetako "uharte" basoetako bat.

2 km

Dura. Zuzen segitu behar dugu, baina kontuz, A-3004 errepeidea zeharkatu behar dugu eta.



Adi! Ez daukagu lehenasuna. Gurutzatu berri dugun errepeidea Durara doa. Aurrera egin behar dugu geure bidetik Erretanarantz.

4 km

Erretanako geltoki zaharra etxebizitza moduan eraberrituta dago.



*LOTUNEA URIBARRI GANBOAKO URTEGIAREN INGURUKO IBILBIDEAREKIN: eskuinera eginez gero, kilometro bat ibilitakoan **Amarita** herrira helduko gara eta 3,2 kilometro egindakoan gida honetako LEHENENGO IBILBIDERA helduko gara (Uribarri Ganboako urtegiko presa).*

6 km

Bidegurutzea. Zuzen (apur bat ezkerrera) egin behar dugu aurrera; bidea AHTren eta AP-1 autobidearen azpitik pasatzen da. Urbinara joan behar dugu.







"UHARTE" BASOAK



Ibilbide honetako altxor nagusietako batzuk basoak dira. Sailen eta herriguneen artean haritz kandudun (*Quercus robur*) asko daude. Arabako lautadako hariztiak antzinako haritz ugaritasunaren hondarrak dira; **Natura 2000 Sarean** bilduta daude.

Arzubiagako hariztia eta Amaritakoa nazioarteko garrantzia duten ekosistema interesgarri horietako bi dira. Guztira 20 uharte baso inguru daude Arabako Lautadan. Zergatik dira hain garrantzizkoak? Antzina alde honetan izan ziren komunitate biologiko handien hondarrak direlako. Berezko oparotasunaz gainera, erkamezti eta harizti bakartu hauetan hainbat haragijale bizi dira: azeria, lepazuria, azkonarra, basakatua eta bisoi europarra.



7,6 km

Urbinan sartuko gara. Ezkerreko kalean behera egin behar dugu eta gero zuzen jarraitu.

7,7 km

Eskuinera jo behar dugu; hartu dugun errepidetik ia bi kilometro ibiliz (9,1 km) berriz ere eskuinera egin behar dugu, eta gero Vasco-Navarro trenbideko seinaleei kasu egin legarrezko bidera itzultzeko.

9,3 km

Hemen ere eskuineko bidea hartu behar dugu AHTren azpitik pasatzeko.

10,2 km

Bidegurutzea. Zuzen jarraituko duzu. Apurtxo bat aurrerago, eskuinean, Vasco-Navarro trenaren Legutioko geltoki zaharra aurkituko dugu; erabat hondatuta dago. Metro batzuk ibilitakoan, harizti mardul bat zeharkatuko dugu. Aurrera egin eta AP-1 autobidearen azpitik pasatuko gara (10,8 km).



Landa herrira hurbiltzen ari gara. Eskuinean **Uribarri Ganboako urtegia** dago, inguruan pago, haritz eta haltzez osatutako basoa daukala. 12,5 km inguruan gure ibilbideak bi lotune dauzka: urtegiaren inguruko ibilbidea, berriz ere; Lautadako itzulia mendien magaletik (ooo GR-25 ooo).





13 km

Landara iritsi gara; eskuinean herriko geltoki zaharra dago. Bidegurutzea dago (bideak eta errepideak). Kontuz: ibilbidetik aurrera egiteko, legarrezko bidea hartu behar dugu.

14 km

Gipuzkoako muga. Ez duzu galtzerik. Nekazaritzako langa batek "lurralde" aldaketaren berri ematen du. Bidea haraneko behealdetik doa larre, pago eta haritz artean.

15,2 km


Arlabango mendatea. Taberna-jatetxe batera helduko gara. Hementxe amaitzen da ibilbidea.



Ibilbidearen amaieran gaudela, bertatik pasatzen da artzain bidea (○○GR-282○○); ibilbide luze honek Araba, Gipuzkoa, Nafarroa, Burgos eta Bizkaiko artzaintza lurak lotzen ditu. Lur horietako larreen eta basoen balio ekologikoa ikaragarria da (Natura 2000 Sarea), eta ondare arkeologiko ugariak antzinako kulturaren berri azaltzen digu.



IBILBIDEAREN PROFILA



LEKU INTERESGARRIAK



NATURA ETA PAISAIA

1. Arzubiagako hariztia
2. Amaritako hariztia
3. Landako parkea
4. Landako basoa
5. Albertiako basoa
6. Salburuako hezegunea
7. Zadorra ibaia
8. Urrunagako urtegia
9. Uribarri Ganboako urtegia



KULTURA

1. Gamarragutxia: Ama Birjinaren Jaiotzaren eliza
2. Dura: Done Eztebe eliza eta trenaren geltoki zaharra
3. Erretana: trenaren geltoki zaharra
4. Luku: Arzamendi jauregia eta trenaren geltoki zaharra
5. Urbina: geltoki zaharra
6. Uribarri Ganboa: gurutzea
7. Goiaín: Santa Ana ermita



AISIALDIRAKO GUNEA

1. Gamarrako igerilekuak
2. Aldaieta klub nautikoa
3. Gasteiz klub nautikoa
4. Legutioko arraun taldea
5. Zabalaingo parkea
6. Landako parke probintziala

MAPA



FITXA TEKNIKOA

Nola heldu:	Gamarrako aparkalekua, Gasteizko bidegorri saretik
Distantzia, guztira:	15,2 kilometro
Iraupena, gutxi gorabehera:	1,5 ordu
Zailtasuna:	Txikia
Gomendatutako bizikleta:	Paseokoa
Desnibel metatua:	125 metro

EZ GERATU IKUSI GABE...

TRENAREN GELTOKI ZAHARRAK

Jendeak "trentxoa" edo "angloa" esaten zion trenak hainbat geraleku eta geltoki zeuzkan Arabako lurraldean. Trenbide zaharrarekin bat datozen ibilbideko tarteeetan ikusiko dituzu.

Geltoki batzuetan egitura baizik ez da geratzen; beste batzuk, aldiz, etxebizitzak edo gizarte zentroak dira gaur egun, eta beren xarma atxiki dute. Gasteizko geltokia konpainiaren egoitza zen. Gainerakoak 40ko hamarkadan eraiki zituzten. Tarte honetan hiru geltoki egon ziren: Erretanakoa eta Urbinakoa etxebizitza eraikinak dira gaur egun, eta Landakoa, gizarte zentroa. Durako geltokia ere zutik dago oraindik, baina guztiz aldatuta.



GIPUZKOAKO ITZULIA (GR-121)

Ibilbideko azken tartea haraneko behealdean zehar doa Arlabango mendateraino. Han gure bideak lotunea dauka ibilbide luze batekin: Gipuzkoako itzulia. Ibilbide honek Gipuzkoa inguratzen du 21 etapatan; guztira 301 kilometro dira.